

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Atal honetan, gure enpresaren oinarria izango diren bezeroekin izango dugun harreman mota zehaztu eta azalduko dugu.

Kanalen atalean landu dugun bezala, gure enpresaren salerosketak bitartekarien bidez funtzionatuko du, guk ez dugulako denda partikularrik izango. Ondorioz, ez dugu inoiz harreman zuzenik izango gure bezeroekin. Hala ere, gure proiektuaren funtsezko alderdi bat gizarteak pairatzen duen arazo sozialaren inguruko ikuspegia aldatzea denez, gure bezeroekiko harremanak konfiantzazkoak eta gertukoak izatea nahi dugu.

Horretarako, feedback-ak jasotzeko eta katalogo gisa funtzionatuko duen webgune batez baliatuko gara. Webgune honetan azalduko informazioa erabiltzaile guztientzako berdina izango da, ondorioz, bezeroekiko harremana automatizatua izango da.

Lera Style deituriko gure webgunea bi ataletan banatuko dugu: gure panpinak ezagutzeko atala eta iradokizunak bidaltzeko atala. Atal honetan, gure bezeroek beraien proposamenak, iritziak, kexak, esperientzia pertsonalak... partekatu ahal izango dituzte gurekin. Guk, atal hori ostiralero begiratuko dugu, eta asteburuan lanketa egin eta ondorio batzuk lortu ondoren, astelehenean, gure sare sozialetako profiletara erantzun global bat argitaratuko dugu post moduan. Honen helburu nagusia, gure bezeroekin harremana estutzea eta beraien iritzia guretzako garrantzitsua dela adieraztea da.

Beraz, gure sare sozialek ere gure bezeroekin kontaktua izateko balioko digute, guk publikatutako post-etan iruzkinak idatzi edo mezu pribatuak bidali ditzaketelako. Gure bezeroak diren gurasoek ez ezik, gure aldarrikapenarekin bat egiten duen pertsona orok ere, bere iritzia, gure enpresarekiko elkartasuna... adierazi dezake, eta guk kontuan hartuko dugu etorkizunean hobetzeko.

Laburbilduz, harreman zuzena ez izan arren, gure bezeroekin konfiantzazko eta gertuko lotura mantentzea lortuko dugu, haien iritziak entzunez eta kontuan



hartuz. Komunikazio-bide hauen bidez, gure proiektua etengabe hobetzea eta gizartearekiko dugun konpromisoa indartzea izango dugu helburu.

